

Egunkaria? Ondo!

Iñaki Uria

Aiurri, Zenbaki berezia 1, 1997: 36-37.

"Zer moduz *Egunkaria?*" galdetuko dit beti bezala eta, azken berriak entzun eta gero, "zuk bai lanak" edo antzekoren bat esanez nire bizkar dagoen zama arintzen lagunduko nau. Luma baino arinago dagoenak. Euskal Herriak zamatuta dagoenak.

Gidoirik gabe ibiliko gara horrela. Ibili eta hitz egin. *Egunkaria*-ri esker laguntasuna eta maitasuna metatuz. Askatasuna eta Maitasuna: *Egunkaria*-ren aktiborik garrantzitsuenetakoak. Martinen hezurdura.

Egunkaria sortzeko garaian, eszeptikoz eta ezkorrez inguratuta, apustu egin zuen Martinek. Gazteen alde. Itxaropenaren alde. Etorkizunaren alde. Euskaltzetasunaren eta abertzetasunaren alde.

Sorrera baten kronika egin beharko banu, jaio behar duen haurarentzat aterpe bila irudikatuko nuke. Euskadi merezi, EAera heldu eta Euskal Herria noraezean ikusi, itzulera mingotz batean, eta *Egunkaria* laguntzen. Ate itxien garaian *Egunkaria*-ri atea irekitzen.

Ametsa errealitate bihurtuz. Ilusioari hitza eskainiz.

Jubilazio errazagoa izango zukeen bestelako aukerei kasu egin izan balie. Baina Martin ez da jubilatzen diren horietakoa.

Hamabostero hamabostero hor agertuko da bere zutabea *Egunkaria*-n. Hor jarraituko du bere ipuinak idazten. Hor, euskara eta Euskal Herriari buruzko bere kezka politikoak komentatzen.

Adibide gisa beti gogoratuko dut Martin eta Joxemi Zumalabek Urtekariarako egindako elkarrizketa. Ordurarte bi elkarrizketa izaten ziren: instituzioen munduko pertsonaia bata, herri mugimendukoa bestea. Urte horretan elkarrizketa bakar batean bildu genituen Joxemi eta Martin. Pentsamendu eta posizio ezberdinetatik abiatuta posible zen euskararen aldeko proiektuetan elkarrizketa eta elkarlana. Ideia nagusi bat: alderdikerien gaintik euskaltzaleok bat egitea. Ez alderdietatik kanpo. Beti baloratu du Martinek militantea. Baina euskara alderdiaren aurretik jarriko duena. Beti baloratu du gizona.

Egunkaria abiatzera zihoan. Bazeuden horretarako oinarriak. Aitzol eta Lizardiren asmo eta garaietatik gure errealitatera. Zumalabe, Jaka... Belaunaldi eta garai ezberdinen arteko zubi dugu Martin.

Eta, Andoaindarrentzat ari naizenez, bukatzeko, kasualitate txiki bat aipatuko dizuet. Lasarten jaio zen *Egunkaria*. Eta Andoainen heldu. Laborden. Hain zuzen, Martinek gaztetan lan egin zuen pabilioi berean!

Kasualitatea...? Zoria...? Auskalo! Zer nahi delarik ere zirrargarria.